

ABIAN:

EKARPEN OROKORRAK

ABIAN prozesuaren barruan egindako ekarpenetan gehien errepikatu diren ideiak azpimarratzea da dokumentu honen helburu nagusia. Zailtasunak zailtasun –ekarpenak mota askotakoak izan direlako–, saiatuko gara profil kohesionatua ematen hasiera batean itxura dispertsatua zuen ideia multzo horri. Helburu horrekin egina dago dokumentu hau.

ABIAN dokumentua lau ataletan egituratuta dago, eta atal bakoitzak bere esparru politiko zein estruktural propioa marrazten du: Balantzzea, Non gaude, Definizio estrategikoa, Ezker Abertzale eraberritua. Logika horri jarraituz eta bloke horiek errespetatuz antolatuko ditugu jasotako ekarpenetan gehien errepikatzen diren ideiak.

Jasotako ekarpen guztien artean gehien errepikatzen den ideia bakar bat aukeratu behar izango bagenu, dudarik gabe ABIAN prozesuaren beharra izango litzateke ideia hori. Igartzen da ABIAN eztabaida prozesua oso garrantzitsua dela Ezker Abertzaleko militantziarentzat. Ariketa psikologiko kolektiboa izateaz gain, Ezker Abertzalea kohesionatzeko baliagarria izango dela da gehiengo handi baten iritzia.

Dokumentu honetan bilduko dira egindako ekarpen guztien artean gehien errepikatzen diren ideiak. Beraz, Araban, Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan egindako ekarpenak –hala taldekoak nola partikularrak– dokumentu honetan daude isladatuak, sintesi laburra egina. Hori izan da, behintzat, gure asmoa.

1 BALANTZEA

Bi multzotan sailkatu ditugu balantzeari dagozkion ekarpenak: lorpenak eta hutsuneak.

Lorpenak:

1. Era batean edo bestean esanda, gehien errepikatzen den ideia prozesuarekin lotuta dago. Alegia, prozesua (Zutik Euskal Herria) martxan jartzea zuzena izan zela. Sartuak ginen isolamendu politikotik ateratzeko baliagarria izan delako. Baita gizartea pizteko ere. Zutik Euskal Herria birkokapen estrategiko emankorra izan da. Amildegira eramaten gintuen bidetik urruntzeko balio izan zuen.
2. Asko errepikatzen den beste ideia bat aldebakartasunaren prozedura da. Blokeoa apurtzeko eta proiektuan aurrera egiteko prozedura egokitzat jotzen da. Balio hori (aldebakartasuna) gure militantzian zein sektore sozial desberdinetan barneratzea lorpen gisa onartzen da.

3. Hirugarren ideia indar harremanen kontzeptuaren inguruan kokatuta dago. Indar metaketarako mekanismo politiko eta sozialak indarrean daude. Gai izan gara, arlo teorikoan behintzat, indar metaketarako bidea marrazteko eta diseinatzeko. Hau ere lorpen ideologikotzat hartzen da.

4. Laugarren ideia feminismoarekin lotuta dago. Lorpena izan da feminismoaren borroka eta aldarrikapena lehia politikoaren lehen lerroan kokatzea prozesu berrian.

Horri dagokionez, azpimarratzen da Ezker Abertzalean garatutako esperientzia: feminismoa txertatzea/garatea bai estrategian eta bai praktika politikoan -kanpora zein barrura begira-.

5. Bosgarren ideia bat ere nagusitzen da ekarpenetan: prozesu berriarekin batera independentzia eta burujabetzaren indarrak askatu ziren. Hori ere lorpen gisa hartzen da.

6. Maiz errepikatzen den seigarren ideia bat indar metaketarekin lotuta dago. Gehiengoak eraikitzen jakitea da egungo estrategia, eta hor urratsak eman dira. Orain dela sei urte Karta Soziala ez zen posible izango, eta Gure Esku Dago ere ez. Zubiak eta gehiengoak eraikitzeke baldintza berriak sortu ditugu. Ez batuketak egiteko, ardatz berriak sortzeko baizik.

7. Aldebakartasuna ez dugu ondo ulertu. Eman diren pausoak erantzunaren esperoan eman dira eta horrek zalantzan jarri du aldebakartasunaren ideia, batzuetan ez ulertzeraino. Bestetik, filosofia hau ez dugu gatazkaren ondorioak ez diren beste eremu batzuetara eraman.

Badaude beste ideia batzuk ekarpenetan hain errepikatuak ez direnak baina maiz agertzen direnak, hala nola:

8. Garaiaren araberan, bozka kopuru handia lortzeko gai izan gara.

9. Estrategia berria gizarteratzea lortu dugu.

10. Abian prozesua, eztabaidarako metodologia eta izaera parte-hartzailea lorpenentzat hartu behar dira.

11. Berrito aktibatu gara. Ezker Abertzalea martxan dago.

12. Batzuetan gure lana ondo ulertu ez bada ere, instituzioen arloan eraldaketa sozialaren alde jo du Ezker Abertzaleak.

13. Politikan aritzeko baldintzak berreskuratu ditugu (ilegalizazio egoeratik atera).

14. Fronte instituzional abertzale bat garatu da (EH Bildu)

Hutsuneak:

1. Era desberdinetan esanda, hau da gehien errepikatzen den ideia: Ezker Abertzalearen barruan prozesuarekiko ilusioa falta da. Ezker Abertzalea piztea ezinbestekoa da. Aurreikuspenetan asmatu ez izana aipatzen da egoera horren arrazoi nagusi gisa. Beraz, hasierako espektatibak ez betetzeak sortzen du desilusio hori.
2. Bigarren ideia nagusia Ezker Abertzalearen kohesio eza da. Arazo hori ekarpen askotan aipatzen da. Hutsune hori konpontzea beharrezkotzat jotzen da.
3. Hirugarren ideia gatazkaren ondorioekin lotuta dago. Gai honek sekulako frustrazioa eragin digu. Arlo horretan ematen den blokeoak Ezker Abertzalearen jarduera politiko guztia baldintzatzen du. Esparru horretan zerbait lortzen ez badugu, zaila daukagu aurrera egitea (hala esaten da ekarpen askotan). Beste batzuek diote esparru hori birdefinitu behar dugula.
4. Laugarren ideia nagusia prozesuaren kudeaketari dagokio. Prozesua eta aldaketa estrategikoa zuzenak izan dira, baina, gero, prozesuaren kudeaketa ez da zuzena izan. Hortik datoz gaur egungo hutsune politiko eta ideologikoak.
5. Azpimarratzen den beste ideia bat honako hau da: ez dugu jakin gelditzen, denbora hartzen eta ildoak berregokitzen. Ez da ildo argirik ikusi eta nora eza nagusitu da.
6. Bide orri baten falta. Malgua (bide konpartitua baita) baina, era berean, definitua: bidea norekin egin nahi dugun, nondik ailegatu erabakitze eskubidera, nola lortu justizia soziala...
7. Defentsiban aritu gara, konplexuz beterik.
8. Ideia hau, tesi orokorarekin kontraesankorra bada ere, behin baino gehiagotan agertzen da: akatsa izan zen Alderdien Legea onartzea.
9. Askotan errepikatzen den beste ideia bat desmoralizazioarena izan da. Nahi edo nahi ez, indar guztiak instituzioetan kokatu dira, eta horrek eragina izan du esparru mobilizatzailean. Orekatu behar da, arlo horretan, Ezker Abertzalearen estrategia.

Batez ere, ahal beste murriztu behar da borroka eremuen arteko desoreka.

10. Kontuan hartu behar da nondik gertatzen. Illegalizatuta geunden. EA, Alternatiba eta Aralar gehitu dira. Hala ere, indar metaketa hori kualitatiboa izan da, baina ez kuantitatiboa. Kostatzen ari zaigu Fronte Zabala egituratzea, ez dugu lortzen forma egokia ematea. Goiko egituretan baino, herrietan dugu arazoa. Ez gara gizartera zabaldu, ez dugu helburu hori lortu. Aurreko urteetako egoeraren zama daramagu gainean.
11. Ideia hau ere ekarpen askotan errepikatzen da: mugimendu politikoa izatetik alderdi baten funtzionamendu klasikora pasa gara urte hauetan. Sortuk politika konbentzionala egin du eta bere egitura politikoa militantziazatik urrun kokatu da.

12. Krisi garaian LAB alternatiba soziala lideratzen ez egotea hutsune nabarmena izan da. Eredu sozialistaren ardatzak markatzen lagundu beharko luke, alternatiba sozial errealak proiektatuz eta sistema berri bateranzko norabidea erakutsiz.
13. Jorratu den ildo bakarra gatazkaren konponbidearena izan da. Blokeo orokorra egon da gure proiektu berria garatu ez dadin. Ireki diguten bide bakarra biktimena izan da, eta esparru horretan behin baino gehiagotan nahastu gara. Zuzendu behar dugu jarrera hori.
14. Prozesu berriarekin jende gutxiago sartzen da espetxera eta presoek kopurua jaisten ari da.

Badaude beste ideia batzuk ekarpenetan hain errepikatuak ez direnak baina maiz agertzen direnak, hala nola:
 15. Pixkanaka, eta Ezker Abertzalearen jarduera instituzionalaren ondorioz, beste indar politiko batzuekin homologatzen joan gara. Alegia, gizarteak beste alderdi politiko bat bezala ikusten gaitu.
 16. Fronte Zabalaren beharra ez da ondo azaldu, ezta barneratu ere. Nahasmen handia dago gure artean gai horren inguruan. EH Bildu “goitik” eratu da, ez da indar politiko horien oinarrien arteko eztabaida batetik sortu, eta horrek atxikimendu eta identifikazio eza eragin du.
 17. Askapen prozesuan ez dira eman espero genituen pausoak. Esate baterako, desobediencia bidean indar gutxi jarri dira. Ez da inolako konfrontaziorik eman.
 18. Indar metaketaren mesedetan, gaizki erabili dugu potentzialtasun hori eta iparra galtzen ari gara. Indar metaketa eraginkorrerako estrategia sendo bat falta zaigu.
 19. Asko dira Ezker Abertzalekoak sentitzen diren lagunak, baina militatzeko prest daudenak ez dira hainbeste. Esparru horretan erlatibismo handia dago.
 20. Sorturen funtzionamenduari buruzko kritika ugari azaldu dira. Batez ere, egitura bertikala kritikatzeko da, non oinarriak bere iritzia emateko aukera gutxi daukan.

Erabakiak hartzeko moduari ez zaio garrantzirik eman.

Zuzendaritza lana egiteko hutsuneak. Aurreikuspen falta, autokritikarik ez. Horrek mesfidantza sortu du.

Iritzi/ikuspegi ezberdinak integratzeko gaitasunik ez.
21. Independentzian zentratu gara gehiegi, eta ezkerreko jo behar dugu. Ezkerreko balioak eta praktika politikoa berreskuratu behar ditugu.
22. Gazteak ia desagerturik ibili dira. Ilegalizazioaren hamarkadan galdu dugun belaunaldi oso baten falta ere sumatzen da. Jendea lasaitu egin da eta ez dugu asmatu gazteak aktibatzen. Ernaik momentu batzuetan gazteria uxatzen du. Ez da lortu gazteen inplikazioa.

23. LAB urruti geratzen zaigu, ELAren berri gehiago iristen zaizkigu. Sindikatuen arteko indarrak bildu beharrean zatitu egin dira. Ez dira aprobetxatu baldintza objektiboak (kaleratzeak, murrizketak, itxierak...) prozesuaren aldeko indarrak biltzeko.
24. Esperientziak erakutsi digu EAJrekin alferrik ari garela. Oso eroso daude. Etorriko dira, baina beste aukerarik ez daukatenean soilik. Bide horretan, bereizketa argia egin behar dugu oinarriaren eta burukideen artean.
25. Lidergo elektoralak izateak ez du esan nahi hegemonia dugunik. Praktika elektoralean indar handia jarri da, eta herri mugimenduetan arreta gutxi. Herririk gabe ez da hegemoniatik egongo.
26. Azken urteotan iraganari buruz transmititu dugun errelatoa ez da egokia izan. Horrek ez du esan nahi hainbat gairen inguruan posizio politiko argia izan behar ez dugunik: eragindako mina, biktimak...
27. Ezker Abertzaleak mugimendu izaera galdu du. Burujabetzaren inguruko diskurtso orokor bat luzatu da, baina hutsune nabariekin (ikuspegi soziala, ekonomikoa, ingurumenari buruzkoa...). Subjektu berria sortzeko, gai horietaz hitz egin behar da.

2 NON GAUDE

Bi dira atal honetan gehien errepikatzen diren ideiak: indefinizioa eta blokeoa.

1. Ez dugu lortu aurreko etapa guztiz atzean uztea eta asko kostatzen ari zaigu berriari definizio zuzena ematea. Bi ur horien artean egiten dugu politika eta askotan nahasten gara. Aurrera egin behar dugunean atzekoak baldintzatzen digu, eta alderantziz. Orokorrean, konkrezio falta.
2. Askok errepikatzen den ideia bat aspektu sozialarekin lotuta dago. Ia ekarpen guztietan agertzen da. Krisian gaude, eta ez dugu jakin errealitate hori eta bere ondorioak ondo marrazten. Soluzioak emateko orduan ere zailtasunak izan ditugu. "Non gaude" galderaren aurrean, hauxe litzateke erantzun zuzena: krisi sozial eta ekonomiko batean gaude.
3. 50 urteko ibilbidearen ostean eskemak aldatzea kosta egiten da, maila guztietan. Hainbat arlotan nora ezean gabilta; barne eztabaida ugari eman ditugu, baina azalpenik ez. 50 urteko ibilbidearen balantze adostua egin beharko litzateke, eta momentu honetan ez gaude hori egiteko moduan.
4. Impasse batean gaude, blokeatuta. Eta egoera horrek egonezina, barne arazoak eta desmotibazio kezagarria ekarri ditu. Joko arauak ezartzeko ezintasunak urduri jartzen gaitu eta dena kolokan jartzeko joerak ugaritzen dira, gure buruarekiko mesfidantza indartzen da eta kritika desleialak egiten dira.

5. Era batean edo bestean asko errepikatzen den beste ideia bat gizartearekin lotuta dago. Gizartea asko aldatzen da denbora laburrean. Prozesu hori azkartu egin da azken hamarkadetan. Esparru sozial berrien aurrean gaude eta jakin behar dugu ondo interpretatzen horrek esan nahi duena.

Aldaketa politiko, ekonomiko eta kultural sakonak eman dira, eta horrek parte-hartze soziopolitikoaren aldaketa ere ekarri du.

Identitate politikoetan aldaketa eman da. Abertzaletasunaren inguruko eztabaida eman beharra.

6. Espainian bizi den estatu krisia ekarpen askotan aipatzen da, era batean edo bestean. Batzuek diote Ezker Abertzalek posizio politiko argia izan behar duela egoera horren aurrean. Ezin dugu itsuarena egin prozesu horren aurrean, gurekin zerikusirik ez balu bezala. Kataluniarekiko gure posizionamendua ez da egokia izan. EHrako aktibo gisa landu beharko genuke, baina ez gara hori egiten ari.
7. Beste ideia nagusi batek mundu globalizatuarekin du zerikusia. Ezker Abertzaleari asko kostatzen ari zaio bere burua errealtate horretan kokatzea. Alde batetik, ez daukagu oso argi nola kokatu behar dugun sozialismoaren eta independentziaren mezua; bestetik, asko kostatzen ari zaigu argitzea zein espazio okupatu behar dugun ezkeraren esparruan.
8. Asko errepikatzen den seigarren ideia bat honako hau da: kanpora begirako erreferentzia argi baten falta. Euskal gizarteak ez daki nola interpretatu gure jarrera politikoa, ez daki nola hartu eta kokatu behar duen Ezker Abertzale berria. Askok pentsatzen dute ez garela hain berriak.

Sorturen eta EH Bilduren arteko bereizketarik ez. Nahasmena sortu da. Indefinizioa.

9. Diskurtso sozialdemokrata daukagu. Arlo horretan, Sorturen diskurtsoa eta EH Bildurena berdinak dira. Sistema barruko diskurtsoa erabiltzen da. Sozioekonomiaren arloan faltan botatzen da mezu ausart eta argi bat, langile klase modernoarekin konektatzen duen diskurtso egoki bat.
10. Preso eta iheslarien aferarekin arazo bat daukagu Ezker Abertzalean. Ezin dugu plazaratu problematika horren garrantzia. Horrek ez du esan nahi Sortuk presoen gaia jorratzen ez duela, baizik eta publikoki lantzen duenean eskubideen ikuspegitik eta mezu lauso batekin egiten duela.
11. Nagusien eta gazteen arteko haustura nabarmena. Kultura politiko berri baten eta paradigma aldaketa moduko baten aurrean egon gaitezke.

Badaude beste ideia batzuk ekarpenetan hain errepikatuak ez direnak baina maiz agertzen direnak, hala nola:

12. Askotan, beste herri batzuekiko dependentzia itzela daukagu. Gehiegi begiratzen diogu Eskozian eta Katalunian egiten dutenari. Gure prozesua berezia da, eta bera da elikatzen jakin behar duguna.

13. Gizarteak ez du sinesten ohiko forma politikoetan. Arlo horretan, gure politika egiteko era oso definitua izan behar da eta, batez ere, besteen moldeetatik aldendu behar da.
14. Borroka armatua bukatu zenetik, bakean bizi garelako ideia gero eta zabalduago dago. Oraindik ez da bakea lortu. Gatazkaren ondorioak ez daude konponduta eta, beraz, etengabe salatu behar dugu bakea espejismo hutsa dela.
15. Askok kostatzen ari zaigu ghettoa izateko edo endogamiarako joera aldatzea eta “gutarrak” ez diren lagunekin konektatzea.
16. Betiko aurpegiak aldaketaren motorra izatea ez da oso sinesgarria, ez kanpora ez barrura begira.
17. Ez dugu lortu ondo definitzea Fronte Zabala zer den eta zertarako nahi dugun. Orain ikusten dena da EH Bildu alderdi koalizio bat dela eta alderdien interesak proiektu globalaren interesen gainetik daudela. Joko horretan ez dago independenteentzako espaziorik, eta kontuan izan behar dugu independenteak behar-beharrezkoak direla EH Bilduren esparru ideologikoa zabaltzeko.
18. Nafarroan eta Araban ondo lantzen ari dira masen antolakundea eta herri mugimendua. Bizkaian eta Gipuzkoan ez.
19. Militantzia eredia aztertzeak “non gauden” jakiteko hainbat datu emango liguke. 24 orduko militantzia eredia bukatu da. Jendarteak gaur egun dituen balioak ez datoz bat Ezker Abertzalearen balio historikoekin. Errepresioak eta ilegalizazioak eragin handia izan dute horretan. Kalitatezko militantzia bermatu behar dugu.
20. Espainiako estatuan indar politiko berriak agertzen ari dira. Mapa politiko berri baten aurrean gaude, eta Ezker Abertzaleak posizioa hartu behar du fenomeno horren aurrean.
21. Ezker Abertzalearen egitura politikoak ez du ondo funtzionatzen. Oso bertikala da eta oinarriak ez du esparru nahikorik erabakitzeko. Horrekin batera, militantzia ereduarekin ez dugu asmatzen. Egoerak argitasun handia eskatzen du bi esparru horietan. Horri dagokionez, garrantzi handia ematen zaio Abian prozesuari.
22. Ezker Abertzaleak azterketa serio eta eraginkor bat egin behar du ondo jakiteko nola gauden eta zein diren gure indarrak, gabeziak eta ezaugarriak. Zintzotasun guztiarekin egin behar dugu azterketa hori, hots, geure burua engainatu gabe.
23. Presoen gaia gure arazo bilakatu da azkenean. Estatua eroso dago eta ez dugu asmatu biktimarioaren errelatotik ateratzen. Eremu emozionalean presoen aldagaiak paper handia jokatzen du eta gure ezintasuna zama bilakatu da. Askok hitz egitea falta izan zaigu. Amnistia hitzaren erabilpena ezin da beste batzuen patrimonio bilakatu. Juridikoki esan nahi duenez harago, gure aldarrikapen historikoa da.

24. Lan estiloaren ikuspegitik, zentralismoa izan da erreferentzia. Iruñerriaren eta beste eskualdeen arteko desoreka nabarmena da. Eskualdeak indarberritu behar ditugu. Eskualdeak aberastu behar ditugu, dinamikaz bete. Dinamika guztiak hiriburuan zentralizatu beharrean, eskualdeetan inbertsioak egin.
25. Kolpe errepresiboek asko zaildu dute panorama, eta gaur egun errepresioaren kontrako esparrua ia desagerturik dago. Espetxeetan oso denbora luzea daramate panoramaz ezer jakin gabe, eta horrek EPPKren barne kohesioa txikitzen lagundu du.
26. Gazte erakundea atzera begira dago, aurrera begiratu ordez. Iraganaren nostalgia.
27. Europan, ezker eraldatzailea nora ezean dabil. Ultraeskuina ezkerren espazio historikoaz jabetzen ari da.

3 DEFINIZIO ESTRATEGIKOA

Ekarpenetan, atal hau nahiko konplikatu izan da ideiak trinkotzeko orduan. Ideiak egon badaude, baina ariketa egin behar da, atalez atal, zentzu kolektiboa eta koherentea emateko. Horixe da hemen egin nahi izan duguna.

Ideien korrelazioa egin beharko bagenu, hau izango litzateke koherentziaren katea: Estatua behar, Independentzia, burujabetza, borroka soziala, instituzioak, masa borroka, herri mugimendua, aldebakartasuna, konfrontazio demokratikoa, nazio eraikuntza. Era batean edo bestean ulertuak edo interpretatuak, elementu guzti horiekin osatu behar da Ezker Abertzalearen proiektu berrirako estrategia. Hori diote ekarpenek.

Bestetik, eta sintesia egiten, honako hauek dira ekarpenetan gehien errepikatzen diren ideiak:

1. Maiz errepikatzen da Ezker Abertzaleko guztiok kontakizun (errelato) berdina izan behar dugula estrategia argi eta eraginkor bat markatzeko, sarri askotan gauza berdina era ezberdinetan interpretatzen baita. Arlo horretan, konkrezio kolektiboaren falta nabaritzen da. Ezinbestekoa da zentzu politikoan Ezker Abertzale batua lortzea.
2. Borroka ideologikoaren esparrua asko aipatzen da ekarpenetan. Jakin behar dugu nolako gizartea daukagun aurrean, eta borroka ideologikoa egin berarekin. Oso kontuan izan behar dugu gaur egungo gizartea askotariko subjektuz osatuta dagoela, datu horrek gauza asko esan nahi baititu. Helburua indar metaketa egitea da, baina oraindik ez dugu lortu independentistak ez diren indarrak gureganatzea. Hutsune hori gainditu behar dugu borroka ideologikoa eginez.
3. Gure estrategia bideratzeko, komunikaziorako aparatua eta mekanismoak indartsuak eta eraginkorrak izan behar dira. Komunikatzeko molde berriak garatu behar ditugu. Ez dugu lortzen gure proposamen politikoak jendarteratzea eta kanpaina ilusionagarriak egitea. Gehiago landu behar ditugu teknologia berriak. Mediatikoki gabezia handiak ditugu. Ez dugu lortzen gazteekin konektatzea.

4. Desobedientzia praktika politikora eraman behar dugu, eta ez erantzun parametroetan soilik, baizik eta nazio eraikuntzan ere, aldebakartasunari zentzu osoa eman. Herri mugimenduari dagokionez, aldebakartasunaren bidez kontrabotere sozial apurtzaile eta iraultzaile bat sortu behar dugu, soilik horrela lortuko baitugu aurrera egitea eta eszenatoki berriak irekitzea.
5. Asko errepikatzen den beste ideia bat aldebakartasunarena da. Aldebakartasuna prozesua aurrera eramaten lagunduko digun tresna ezinbestekoa da. Urrats eraginkorrak egin behar ditugu prozesua aurrera eramateko, eta urrats horiek aldebakartasunaren bidez erabiliz eman behar dira. Defentsiban jokatzeari utzi behar diogu.
6. Ekarpen askotan tentsionamenduaren beharra aipatzen da. Herri aktibazioa ezinbestekoa dela azpimarratzen da. Horretarako, herri mugimenduak behar ditugu. Hutsune hori bete behar dugu.

Konfrontazio eremua finkatu behar.

Desobedientzia da klabea.

Erradikaltasuna berreskuratu behar.

7. Taktikaren beharra aipatzen da hainbat ekarpenetan. Ezker Abertzalearen helburua ezin da izan hauteskundeak irabaztea. Gure proiektu politikoa gauzatzeko baldintza objektiboak eta subjektiboak sortzea izan behar da helburua, eta horretarako bide taktikoa diseinatu behar dugu. Taktika falta zaigu. Taktikak faseak irakurtzen ditu.
8. Zutik Euskal Herriari bere balioa eman behar zaio. Estrategia aldaketak sekulako aldaketa kualitatiboak eragin du Ezker Abertzalean eta beste esparru politiko zein sozial batzuetan. Hala ere, gerora, gauza batzuk ez ditugu ondo egin. Esate baterako, taktikoa izan behar zena perspektiba estrategiko bilakatu da (EH Bildu mugimendu horren adibidea izan daiteke).
9. Independentziak ekarriko lizkigukeen onurak jendarteratu beharko genituzke. Bide hori marraztu beharko genuke. Gainera, arreta handiagoa eskaini beharko genieke independentziaren alde lan egiten duten erakundeei. Gure Esku Dago bezalako dinamikek independentziaren hautua egiteko galdeketa prozesua bideratu beharko lukete, eta indartu beharko genituzke dinamika horiek.
10. Ekarpen askotan –batez ere “gogoeta egunetik” datozenetan–, garrantzi ideologiko handia ematen zaio borroka feministari. Mugimendu feminista oso indartsu dago, baina egoera hori ez da behar bezala irudikatzen Ezker Abertzalean. Feminismoaren balioak goian egon behar dira.
11. Euskal Estatuaren eraikuntzan urrats kualitatiboak eman behar dira. Hori bultzatzeko instituzioak eta herri egitura berriak eraiki behar dira.
12. Estrategia markatzeko orduan argi geratu behar da gure izaera ezkertiarra. Euskal Herri independentea eta Euskal Estatua ezkerretik eraiki behar dira. Ideia hori ekarpen askotan agertzen da.

Ezkerretik egin behar diegu aurre egoera sozialari, prekarietateari eta krisi estrukturalaren ondorio guztiei. Hori da jendartearekin konektatzeko eta prozesu independentistan indarrak metatzeko modu bakarra.

Badaude beste ideia batzuk ekarpenetan hain errepikatuak ez direnak baina maiz agertzen direnak, hala nola:

13. Inmediatismo elektoraletik atera behar gara. Era berean, gaur egun instituzioen eta kalearen artean dagoen distantzia murriztu, diferentziak leundu eta sintonia berean jarri behar ditugu bi eremu horiek.
14. Militantziak formakuntza behar du. Sortuk ahalegina egin beharko luke arlo horretan. Formakuntzan inbertitzea ildo estrategikoaren barruan egon beharko litzateke.
15. Ildo estrategiko eta politiko argia eta integrala behar dugu. Eta gure strategiaren ardatz nagusiak bi hauek izan behar dira: ezkerreko izaera (gaur egun Ezker Abertzalea ez da ezkerreko erreferente hegemonikoa) eta nazio eraikuntza.
16. EAJri eskua luzatzeari utzi behar diogu. Haiekin izandako harremanak ez dira onak izan guretzat. Gure posizioa finkatu eta gure lana egin behar dugu EAJ erabakitze eskubidera erakartzeko, baina haren itzala izan gabe.
17. Presoen gaiari benetan duen garrantzia eman behar zaio. Gai horrek asko eragiten dio Ezker Abertzaleari. Indarrak inbertitu behar dira esparru horretan, eta blokeotik irteteko modua aurkitu.

Presoen izaera politikoa aldarrikatu behar dugu.
18. Estrategiaren arloan, ekarpen askotan azpimarratzen da Ezker Abertzalearen barruan prozesuarekiko ilusioa falta dela. Ilusio hori piztu behar dugu, bestela taktikak eta estrategiak ez dutelako ezertarako balio izango.
19. Estrategia finkatzea ezinbestekoa da, baina hori baino lehenago argitu egin behar da zer funtzio bete behar dituen erakunde bakoitzak (Sortu, EH Bildu, Ezker Abertzalea, Fronte Zabala). Hori argi geratzen ez bada, nekez asmatuko dugu strategiarekin.
20. Lurralde batasunaren ikuspegia. Estrategiak nazionala izan behar du.
21. Erabakitzeko eskubidea erdigune politikoan kokatu behar da.
22. Independentziaren aldarrikapenari edukia eman behar zaio. Ez da aldarrikapen huts edo "erlijio" gisa tratatu behar, arazo sozialei erantzuteko tresna gisa baizik.
23. Herrigintzaren garrantzia. Komunitatean garatzen diren esperientzien bidez sinergiak eraiki.
24. Urgentziak agintzen du, garrantzitsua dena baztertuz.
25. Alderdi klasikoaren eskema sortu dugu: alderdi politikoa, sindikatua eta gazte erakundea. Zalantzan jartzen da eredu hori.

4 EZKER ABERTZALE ERABERRITUA *(Antolakuntza eredua)*

Atal honetan ideien dispertsioa oso nabaria da. Ikusten da Ezker Abertzalea ulertzeko era ezberdinak daudela. Hain zuzen ere, antolakuntza eredua ulertzeko era ezberdinak horren ondorioa dira. Badirudi jende asko ez datorrela bat gaur egungo antolakuntza ereduarekin eta berrikuntza bat beharko lukeela.

1. Atal honetako ekarpenetan gehien errepikatzen den ideia Ezker Abertzalearen aniztasuna da. Ezker Abertzalea ez da bakarrik Ernai, Sortu eta LAB; hori baino askoz gehiago da. Errealitate hori onartzen jakin behar dugu, eta dimentsio estrukturala eman. Ekarpenekek diote mugimendu izaera bermatu behar dela.
2. Ekarpene askotan esaten da Ezker Abertzalea instituzioen esparrutik harago begiratu behar duen mugimendu politiko bat izan behar dela, lagun ezberdinak integratzeko gai izango den mugimendu bat, irekia eta aurrerakoia, oinarrizko lorpen sozialak aldarrikatzen dituen XXI. mendeko mugimendu politiko bat.
3. Askok errepikatzen den beste ideia bat Sorturen funtzioa da. Sortu gardenagoa izan behar da. Oso hurbil dauden militanteentzat izan ezik, jende askorentzat Sortu zerbait iluna da. Egitura esaten diote, baino oso gutxi dakite norena den ardura bakoitza eta, beraz, ez dakite erantzukizunak nori eskatu behar zaizkion.

Informazioa boterea da, eta, lehenik eta behin, Ezker Abertzalean informazioa kudeatzeko/konpartitzeko modua aldatu beharra dago.

Barne komunikaziorik ez dago, eta kanpo komunikazioa erabiltzen da horren ordez, eta horrek gaizki-ulertu asko dakar.

4. Behin baino gehiagotan agertzen da iritzia hau: sortukideak izan arren, ez gara gure erakundearen parte sentitzen. Informazioa behar dugu, barne informazioa, ez bakarrik Garan agertzen dena. Elikadura politikoaren falta horrek erakundetik urruntzen gaitu.
5. Askok errepikatzen den beste ideia bat honako hau da: Ezker Abertzalearen zuzendaritza partekatua izan behar da. Ez da zehazten zeinen artean partekatu behar den, baina gaur egungoa baino zabalagoa eta irekiagoa izan behar dela esaten da. Egungo Sortu bakarrik ez da gai ardura hori aurrera eramateko. Zuzendaritza horretan esparru berriak integratu behar dira. Mugimendu oso baten gidaritza ezin da alderdi bakar baten gain geratu, ezta hiru antolakunderen gain ere (Sortu, LAB, Ernai). Ezker Abertzalea hori baino askoz gehiago da. Horrek ez du kentzen Sortu, LAB eta Ernairen arteko komunikazioa indartzeko eta lan egiteko marko komunak sortzearen beharra dagoela.
6. Ekarpene askotan esaten da ondo zehaztu behar direla Ezker Abertzalearen ardurak edo funtzioak. Zeregin nagusia askapen prozesuaren diseinua egitea da, nazio eraikuntzaren arloko lana sustatzearekin eta gidatzearekin batera. Orokorrean, askapen prozesuaren motorra eta gidaria izan behar da.

7. Ezker Abertzalearen nora eza aipatzen da hainbat ekarpenetan. Konkrezioa falta zaio, hau da, argi azaltzea zein diren bere funtzioak eta militantziak zeri ekin behar dion. Erronkak eta zereginak zehaztu behar ditugu, eta argi utzi nori dagokion horietako bakoitza aurrera eramatearen ardura. Argitu egin behar da, behingoz, Ezker Abertzalearen funtzio ideologiko eta politikoa.
8. Ezker Abertzaleak bete behar dituen zereginen inguruan hitz egiten da hainbat ekarpenetan. Ezker Abertzaleak bere betiko nortasuna berreskuratu behar du. Alegia, borroka mota guztien gidaria izan behar da (herri borroka, gazte borroka, borroka sindikala, masa borroka, borroka instituzionala...), eta bere baitan eztabaidatu eta erabaki behar ditu egoera bakoitzari dagozkion taktikak eta estrategiak. Ezker Abertzalea borroka molde horien guztien kohesionatzaile eta gidari izan behar da. Bere izaera iraultzailea azpimarratu behar da.
9. Antolakunde espezifiko bana behar dira herri mugimendua dinamizatzeko eta garatzeko eta presoan afera lantzeko.
10. Teorian, zuzendaritza hiru antolakundeei dagokiela adostu zen, baina praktikan Sortuk hartu du zuzendaritza funtzioa. Kostatu da Ezker Abertzaleko erakundeen arteko harremanak bideratzea, eta askotan bakoitza bere bidetik zihoalako sentazioa eman dugu. Koordinazio falta sumatu da.
11. Ezker Abertzale berriak berreskuratu egin behar ditu bidean galdutako konfiantza eta ilusioa. Barne demokrazia lortzeko, beste funtzionamendu molde bati eutsi behar dio. Zuzendaritza eredu berria sortu behar da; Sortu, LAB eta Ernai baino gehiago da Ezker Abertzalea. Mugimendu inklusiboa izan behar da, eta ez eksklusiboa. Mugimendu gardena eta kritikei iragazkorra izan behar da.
12. Ezker Abertzaleak oinarritzko bost antolakunde eta hiru bateragune beharko lituzke: sindikatua (LAB), gazte antolakundea (Ernai), antolakunde politikoa (Sortu), herri mugimendurako antolakundea, gatazkaren ondorioak lantzeko antolakundea (preso eta iheslariak, errepresioari erantzutea, alde hemendik...) eta aurreko guztiak elkartuko lituzkeen bilguneren bat.
13. Gatazkaren ondorioen arloan defentsiban ari gara jokatzeko Ezker Abertzalean. Prozesua martxa jarri zenean, ilusioa eta presoan aldeko mobilizazioa sortu ziren. Azken garai honetan hori ez da lortu. Erantzun ildorik ez dago. Ildo antirrepresiborik ez dago.
14. Gatazkaren konponbidearen blokeoaren aurrean ez dugu jakin egoera kudeatzen. Barne arazoak ez ditugu ondo kudeatu eta jende asko kanpoan geratu da. Ez ditugu gure indarrak baliatu.
15. Formazio iraunkorra eta eztabaida ideologikoa bermatu behar dira.
16. Konfiantzan oinarritutako funtzionamendua izan behar dugu. Entzuteko gaitasuna izan behar dugu.

17. Ezker Abertzaleak lidergo naturalak behar ditu.
18. Indar metaketa bai, baina gure nortasuna galdu barik.
19. Sorturen eta EH Bilduren bozeramaileak bereizi behar dira.
20. Dena birpentsatu behar da. EH Bildu desagerrarazi egin behar da, gaur egun ulertuta dagoen moduan behintzat (alderdi kuotetan banatutako koalizioa).
21. Militante erreferentzialen berritzea, lagun berriak fase berri baterako, orain arte erreferentzialak izan direnak ondoan egoten esperientzia transmititzeko.
22. Zerrendetan profil teknikoa eta profil militantea uztartu behar ditugu. Jende desberdina, eta ez beti aparatuak kontrolatzen dituen hautagaiak.

FITXA TEKNIKOA:

Ekarpen guztien artean, eran batean edo bestean esanda, hauexek izan dira gehien errepikatutako ideiak. Hainbeste ekarpenen artean ideia asko agertzen dira, eta ez da erraza guztiak sintesi batean biltzea. Hori dela eta, txosten hau begirada zabal horretatik ulertzea eskatzen dizuegu.

Ekarpenak hiru ataletan banatu dira: partikularrak, taldekoak eta “gogoeta egunekoak” (hauek egun horretan hartutako aktetan bilduak). Ekarpenerik partikular batzuk osorik jasoko dira beste txosten batean (gerorako baliagarriak izango direlakoan).

Orokorrean, gutxi gorabehera 700 ekarpen aztertu dira txosten honetan.

Eragile taldea